

Euskal Herria: barnean gozo eta kanpoan airoso

Xabier Etxaniz*

Azken urte honetan euskal haur eta gazte literaturak aurreko urteetako ildo beretik jo du. Gero eta zainduagoak diren edizioak, kanpoko best sellerren eta nazioarteko argitalpen interesgarrien itzulpenak, bertako produkzio zaindua, eta abar. Jakina, argiune horiek izan diren bezala, eduki ditugu alde ilunagoak, komikiaren eza, antzerkiaren argitalpen eskasa edo aldizkariaren krisia, bakar batzuk aipatzearen. Baina azken urte honen batz besteko balorpen honetan zerbait azpimarratu behar baldin badugu hori, gure uste apalean, kanpoan izan dugun harrera izango litzateke. Euskal idazleek kanpoan izaniko onarpen handia, alegia.

Duela urtebete, aldizkari honetan bertan, euskal haur eta gazte literaturaz hitz egitean zera komentatzen genuen, arlo horretako gabeziak asetzen ari zirela eta literatur sistema egonkor eta osoaren aurrean geundela. Egia esan, duela urte batzuetatik hona bada merkatu asetze sententzia, inguruko literaturatan gertatzen den bezala, euskal HGLn ere ugari argitaratu da azken urteotan, ehunka liburu berri kaleratzen dira urtero urtero, eta alde horretatik gero eta zailagoa da liburu batek merezi duen harrera izatea, bai salmentan bai kritika bai publikoaren aldetik. *Berria* egunkaria plazaratu eta handik aste pare batera gai horren inguruko erreportaia kaleratu zuten, haur eta gazte literaturaren merkatuaz eta kriti-


karen beharraz. Eta arestian aipaturiko guztiaren adibide bat dugu Kirmen Uribek idatzitako *Ekidazu, lehoiek ez dakite biolina jotzen* (Kukubiltxo-Elkar, 2003) liburua; izan ere Kukubiltxo taldeak taulaturiko obra horren liburua eta Oskorri musika talde ezagunaren Cda kaleratu dira lote batean eta ia-ia oharkabean pasatu da denden apaletara, zarata handirik gabe. Edo, beste adibide bat jartzearen, gauza bera esan genezake Felipe Juaristik idatzitako *Haydn-en lora* (Aizkorri, 2003) estatu mailan gazte literatura sari nagusienetako bat irabazi duen liburuaz.

Sariak

Haydn-en lora izan da euskal idazle batek irabazitako sari nagusietako bat, Everest argitaletxeak deituriko Irakurriz Bizi saria, baina hori ez da izan gure idazleek jasotako sari bakarra. Lehenbiziko aldiz estatuko lau hizkuntzatan konbokatzen den Lazarillo saria euskal idazle batek irabazi du, Laida Martinez bilbotarrak; beste aldetik Apirila sari garrantzitsua, Argitaletxe Elkartuek eta estatuko enpresa handi batek emana, Joanes Urkioxok irabazi du abenturazko gazte nobela batekin. Horri guztiari gehitzen badiogu iazko España-

ko sari nazionalen finalean zuden lau liburuetatik bi Mariasun Landarenak zirela, areagotu egiten da arestian aipaturiko harrera hori. Baina, inon gure idazleek harrera ona izan badute Euskal Herritik kanpo ere, hori egunero irakurleen aldetik jaso duten harrera izan da. Lehendik ere ezagunak ziren Juan Kruz Igerabide, Bernardo Atxaga, Patxi Zubizarreta edo Mariasun Landari gehitu baitzaizkio beste batzuk azken garai honetan, hala nola Miren Agur Meabe, Arantxa Iturbe edo Aitor Arana, besteak beste.

Euskal Herrian, euskaraz deituriko sarietan, berriz, denetarik



izan dugu azken urte honetan. Labayen saria hutsik geratu zen, Lizardi, aldiz, idazle berri batek irabazi zuen, Imanol Azkue Ibarbiak *Gaur egun handia da* (Erein, 2003), idazle ofizioari buruzko idazlan ironiko batekin. Baporea saria Aitor Aranak eskuratu zuen zientzia-fikziozko nobela batekin *Azken gurasoak* (SM, 2003), indarkeria, basakeria eta maitasuna, denetarik duen gazte nobela, hain zuzen. Euskadi saria, beste aldetik Miren Agur Meabe, *Itsaslabarreko etxea* (Aizkorri, 2001) idazleak eskuratu zuen bere HGLko lehen idazlanarekin; harrezkero beste hiru liburu gehiago idatzi ditu. Baina gure arteko sarien artean baten bat azpimarratu beharko bagenu itzulpeneko Euskadi saria izango litzateke; iaz, lehen aldiz, gazte literaturako obra baten itzulpenari eman baitzioten sari hori, Iñaki Mendigurenek euskaratutako *Harry Potter eta sekretuen ganbara* (Elkar-Salamantra, 2001) liburu ezagunari, hain zuzen.

Itzulpenak

Azken urte honetan euskaraturiko idazlanei dagokienez, argitaletxeek aurreko urteetako irizpide berberarekin jarraitu dute. Kalandraka etxe galiziarrek haur txikiak albumak plazaratzen jarraitu du arlo horretan dagoen beharrari erantzuten, eta asetzen. Haur txikien esparruan galiziarrez gain oso gutxi egin da, Tarttalo argitaletxeak zerbait edo Hiriak (esaterako Anthony Brownwewn *Tunela*, 2003, liburu ezaguna), eta liburu bakar batzuk Ibaizabalek: *Maitagarria zarelako* (Ibaizabal, 2003), Guido Van Genechtenek egin; edo *Animalia harrigarriak* (Ibaizabal, 2003) Alain Serres eta Martin Jarriren eskutik. Honela, aurreko urteetako ildo moteldu egin da, aurten ez da izan euskarazko jatorrizko albumik. Aurreko urteetan Erein edo Desclee argitaletxeek markaturiko bidea gelditu egin da.

Ibaizabal argitaletxeak, beste arlo batean, gaztelerako Edelvi-vesekin batera, bi bilduma berri kaleratu ditu: Paper Txoriak eta

Ameslari, bi bilduma hauetan, beste batzuen artean, Daniel Nesquens, Emilio Urberuaga, Wendy Orr, Jordi Sierra i Fabra edo Carlo Frabetti idazleen lanak aurki daitezke argitalepen zaindu, erakargarri eta modernoetan lehen irakurleetatik gazte literaturarainoko esparrua hartuz.

Azken esparru horretan kokatzen dira Gemma Lluch irakasle eta kritikari valentziarren lehen lana, < //jokoa.com > (Erein, 2002), hainbat narrazio plano eta estilo (egunerokoa, grabazioak, internet, narratzaila...) nahasten diren gazte nobela, irakurlea bera ere harrapatzen duen nobela; eta Henning Mankellen, *Itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean* (Erein, 2003) nobela interesgarria.

Klasikoagoa da Juan Farias idazlearen *Loreontzi bat lapitez betea* (Elkar, 2002), eta, batik bat, mila gau eta bat gehiago bilduma interesgarritik Patxi Zubizarretak eginiko antologia *Mila gau eta bat gehiago* (Erein, 2002). Azken liburu hau Erein argitaletxeak klasikoak gazteengana hurbiltzeko eginiko Gure Klasikoak sailaren barruan kaleratu da. Antzeko asmoarekin ere, beste herrialdeetako kultura gure gaztetxoei hur-

biltzea, izan du Argitaletxe Elkartuak (gure artean Elkar) taldeak argitaraturiko ipuin herrikoien bildumak, orain arte Iparramerika eta Japongo ipuinak kaleratu dituen bilduma, alegia.

Azken urte honetan beste hainbat liburu aipagarri ere euskaratu dira, Fina Casalderrey —*Txakurra daukagu etxean* (Elkar, 2003)—, Andrew Clements —*Frindela* (Aizkorri, 2002)— edo Montxo Iturbe —*Zine-antzerkiak* (Elkar, 2003)— idazleena, esaterako. Azken honek, gainera, Aitor Txarterinarekin batera *Zenbakiak eta ale eleak. Pedagogoa gogoan. Eko-lojikoak* (Artezblai, 2002) argitaratu du antzerki lan bat euskaraz. Hots, literatur generoen artean dagoen desorekaren adibide argia.

Poesia

Iazko azaroaren 14tik 16ra Galtzagorri elkarteak haur poetari buruzko jardunaldiak antolatu zituen Donostian, ponenteen artean arlo horretan adituak diren Anjel Lertxundi, Antonio García Teijeiro, Miquel Desclot, Ana Pelegrín, Juan Kruz Igerabide eta Antonio García Yebra izan

ziren (beraueko batzuen potentziak aldizkari honetan bertan argitaratu ziren eta gehienak *Behinola* aldizkariaren 8. zenbakiak plazaratu dira). Hitzaldi horiez gain errezitaldiak, tallerrek edo mahainguruek osatu zuten hiru egunetako egitaraua, eta, zailtzarrik gabe, oso baliagarriak izan ziren euskal haur literaturan piskanaka gero eta pisu handiagoa hartzen ari den genero honen inguruan gogoeta egiteko.

Izan ere, haur poesia apurka-apurka bere bidea egiten ari da gure artean, honen adibidea dugu Aizkorri argitaletxeak bere bosgarren urteurrena ospatzeko plazaraturiko *Zaldiko-maldikoan* (Aizkorri, 2002) antologia, bertan parte hartu dute dozena bat idazlek, beraien artean daudelarik Añorga, Atxaga, Igerabide, Kazabon edo Ormazabal.

Antologian agertzen diren hiru idazlek, gainera, poesia liburu bana plazaratu dute azken urte honetan: J. Ormazabalek *Hiztegi jolastia* (Elkar, 2002), hitzekin jolastuz abezedario poetikoa sortu duena oso liburu zainduan, E. Odriozolaren ilustrazioekin eta azal gogorarekin; Jon Suarezek, beste aldetik, *Ilbetea dilindan* (Pamiela, 2002) poema liburuan istorio poetikoak kontatzen dizkigu. Eta azkenik, gure haur poetarik ezagunena, Juan Kruz Igerabide. Idazle adunarrak beste liburu elebidun bat plazaratu du: *Hosto gorri, hosto berde. Hoja roja, hoja verde* (Centro de Lingüística Aplicada Atenea, 2002), *haiku* japoniarren eragina nabarmena duen liburua.

Haur poesia liburuen kalitateak eta urtero urtero plazaratzen ari direla ikusteak argi eta garbi adierazten dute literatura genero horrek gure artean hartu duen garrantzia. Gainera, aipaturiko liburu horiez gain izan dira beste batzuk aipatzeko modukoak, *Txinpartaren izakiak* (Elkar, 2002) Pello Añorgak idatzitakoa eta, Jokin Mitxelenak ederki ilustraturikoa, adibidez. Liburu honetan argi ikusten da zein irristakorra den poesiaren eta narratibaren arteko muga. Edo Anjel Lertxundiren *Aizak eta aizan, elkarrekin dantzan* (Elkar, 2002) jolasak, zitak, esaera zaharrak eta antzekoak biltzen dituen li-



MARIA ESPIUGA, NOIA ZUZENDU ANDERENO GAIZTO BAT, GIITZA-EDEBE, 2003.


buru paregabea. Tradizioa eta modernitatea elkarren eskutik joan daitezkeela erakusten duen liburu honetan, gainera, Antton Olariagaren ilustrazio bizi eta apartak aurki daitezke.

Klasikoak

Anjel Lertxundi, euskal HGLko berritzaileetako bat Atxaga eta Mariasun Landarekin batera, neurri batean ere idazle klasikotzat har dezakegu, euskal literatura modernoko idazle klasikoak. HGLn liburu ugari eta helduentzako beste hainbat idatzi dituen egile honek urte batzuk zeramatzen haur literaturan gutxiago argitaratzen. Azken urte honetan, aldiz, arestian aipaturiko liburuz gain beste hiru liburu kaleratu ditu. Maxe saileko hirugarren liburua dugu horietako bat, *Ezkutuko maitea* (Elkar, 2002). Nobela honetan, aurrekoetan bezala, Maxe nerabezaro garai korpailatsuan aurkituko dugu, maitasuna, droga trafikoa edo familia barneko eztabaidak kontu handiz landutako gaiak dira, bai literatura aldetik bai ideiak azaltzeko ikuspegitik. *Brummm!* (Elkar, 2003), ordea, askoz ipuin simple eta laburragoa dugu, errealtatea eta fantasia eskutik doaz Nikoren munduan, eta irakurleak gozatuko du nahasketa horren emaitzarekin. Are poz handiagoa, atsegin handiagoa, izango du Antton Olariagaren irudiekin (liburu honetan nahiz aurrekoan eginiko irudiekin).

Dindirri (SM, 2003), hasiera batean *Gara* egunkariak plazaratu zuena gabonak aldera kalera-tu ohi duen haur bilduma elebidunean (euskara/ingelera), dugu A. Lertxundiren hirugarren lana. Elena Odriozolak ohiko dituen irudi simple eta atseginez horniturik dagoen ipuin motz eta bizia da. Liburuaren argumentua ere simplea dugu, hunkigarria, eta istorioa idazkera zaindu, sintetiko samarrez idatzirik dugu.

2002. urtearen amaian, gure artean hain ezaguna zen Jose Mari Satrustegi euskaltzainak argitaratu zuen ipuin herrikoien bilduma txiki bat: *Argisentiko ipuinak* (Ibaizabal, 2002). Liburu osatzen duten bost ipuin hauek dira



ELENA ODRIOZOLA, MARLENE ETA TAXIZAPATA, SM, 2002.

Satrustegi hil aurretik argiraturiko bere azken lana. Euskal kulturaren izaniko galera horren aipua azken *Behinola* aldizkarian ere agertzen zen, izan ere Satrustegik arlo ugari ukitzen zituen, bai eta HGLren inguruakoak.

Baina idazle klasikoei buruz hitz egitean, aurrekoen aipaturiko hori dugu Ramon Saizarbitoria *Kandinskyren tradizioa* (Erein, 2003). Helduen literaturako bere idazlanak direla eta euskal literaturaren historiari agertzen den idazle honek, helduen literaturan hainbat eta hainbat sari eskuratu dituen idazle donostiarrak, lehenbiziko aldiz idatzi du gazteentzako nobela bat. *Kandinskyren tradizioa* nobelan gazteen arteko harremanak azaltzen zaizkigu, baina horrez gain lehen amodioa, lehen harreman sexuala eta antzeko gaiak agertzen dira monologo luze batean kontaktatzen den istorio honetan, 80 orrialdetan zehar irakurleak harrapatzen duen nobela honetan. Liburu honen bertsiotzat elebiduna, euskara/españolara, egileak berak eginak aurki daite-

ke Madrilgo Centro de Lingüística Aplicada Atenea argitaletxean eginiko edizioan (2003).

Haur ipuinak

Azken urteotan euskal hainbat argitaletxe saiatu dira haur txiki-entzako liburuak kaleratzen. Irudi liburuaren arloak, lehenago aipatu bezala, geldione bat izan du azken urte honetan, ez ordea haur txiki-entzako ipuineak. Elkar argitaletxeak bere bilduma berriak bultzatu ditu, *Batela* eta *Lamia* (lehen irakurleentzat) eta *Kuku* (8 urtetik gorakoentzat). Aizkorri, Ibaizabal edo Giltza bezalako etxeek, berriz, aurreko urteetako ildotik jarraitu dute; beraz, ez gaitu harritu behar irakurle multzo honentzat liburu berri ugari egoteak. Azkenaldi honetan kaleratutako artean badira aipatzeko moduko batzuk, horietako bat da, zalantzarik gabe J. K. Igerabidek idatzitako *Jonas larri* (Aizkorri, 2002) ipuina. Jonas pertsonaia ezagunaren laugarren liburua dugu hau, Mikel

Valverdekin ederki ilustratua, eta aurrekoek bezala, Jonasen istorio simple bat kontaktatzen digu. Simplea eta ederra dugu ere neskati-baten jateko ohiturei buruzko *Basapiztia bat zopan* (Aizkorri, 2003) Karlos Santistebanek idatzi eta Jokin Mitxelenak ilustraturiko ipuina; *Itsasoa etxe barruan* (Elkar, 2003) ipuinean, hau ere hasiera batean *Gara* egunkariak plazaratua, Harkaitz Canok haurren irudimenarekin jolastan duen istorio hunkigarri eta entretenigarri bat sortuz, Mikel Valverdekin bere irudiekin ederki osatu duen ipuina. Txilikuk idatzitako *Amo- na Blasi eta herensuge-kumea* (Elkar, 2002) ipuinean dragoien istorio moderno (eta barregarri) batekin gozatzeaz gain, ilustratzaile berri bat aurkitzeko ere bali- o izan du: Tesa González. Eta gozatu ere, gozatu dugu egunero- ko moduan idatzita dagoen *Nola zuzendu andereño gaizto bat* (Giltza, 2003) Miren Agur Mea- beren ipuinarekin, edo *Joanes eta Bioletaren bihotza* (Elkar, 2002) egile berberarekin.

Dena dela, gure haur eta gazte literaturak tradizio eta produkzio gehien izan duen arloa Lehen hezkuntzari dagokion esparrua-rena izan da. Eskaera handiena bertan dago eta erraztasun handiak daude argitaletxeen produkzioan (irudiek ez dute zergatik izan behar koloretan, nahiz eta bilduma batzuetan hala gertatu), hori dena dela eta, gure inguruko beste kulturetan gertatzen den bezala, esparru horretan argita- ratzen dira liburu gehienak eus- karaz ere. Azken bolada honetan kaleratutako artean aipa dai- tezke Mariasun Landaren *Mar- lene eta taxizapata* (SM, 2002) alegi modernoa, umore kutsuz idatzi eta zinema munduari egi- niko keinuak dituen ipuina; kul- turen arteko baloreak edo gizar- teratzearena bultzatzen dituen *Horazio eta jaguarra* (Elkar, 2002), Txilikuk idatzi eta Elena Odriozolak ilustraturiko ipuina; edo azken ilustratzaile honek edertutako *Norak suhiltzaile izan nahi du* (Elkar, 2003) Arantxa Iturberen ipuina. Aitor Aranak, beste alde, arestian aipaturiko Baporea sariaz gain bi abentura liburu idatzi ditu: *Irunberriko sorginak* (Txalaparta, 2003) sor-

gin istorioa, eta *Klaudia eta baloien sekretua* (Ibaizabal, 2003) futbola maite duen neska bati buruzko ipuina; eta Klaudiak futbolearen ari nahi duen bitartean Markosek, Patxi Zubizarretak idatziriko *Markos kantinera* (Elkar, 2002) ipuinaren protagonistak, kantinera izan nahiko du eta neskaz jantzi danborradan, edo Zuriñek, Seve Callejaren ipuinaren protagonista den neska beltzak, zuri izan nahi du *Zuriñek beltza izan nahi du* (Ibaizabal, 2002) istorioan.


Joxemari Iturraldearen *Risky mutiko*, edo gazte, bihurria berriro itzuli da gure plazara *Riskyren barrabaskeriak* (Elkar, 2002) liburuan, eta gauza bera egin du Iñaki Zubeldiaren bele ezagunak, *Pako belea basoan* (Ibaizabal, 2002), bere lagunengana bueltatuko baita.

Aipatzekoak dira baita ere *Antonio Bolas* (Elkar, 2002) Joxean Ormazabalek jasotako gertakari xelebreen bilduma; Joseba Osak idatzitako *Finlandiako ipuin eroak* (Alfaguara-Zubia, 2002), dibortzioari buruzko *Etxe bitan bizi naiz* (Elkar, 2003) Miren Agur Meaberen ipuina, edo Xabier eta Martin Etxeberría anaia bizkiei gertaturiko anekdota xelebreak biltzen dituen obra: *Anaiak ematen duzue* (Elkar, 2002).

Idazle berriak

Aurretik aipatu izan dugu Lizardi saria 2002, *Gaur egun handia da* (Erein, 2003), eta nola idazle berri bat deskubritzeko parada izan dugun: Imanol Azkue Ibarbia. Baina horrez gain ipuinak literatura sariei buruz, idazkera ezberdinei buruz eta hainbat konturi buruz hitz egiteko (irakurtzeko) aukera ematen digu ironia eta umorez, haur baten begiez (edo hitzez).

Idazle horrez gain izan dira gure artera lehenbiziko aldiz plazaratu diren beste batzuk, hala nola Leire Iradier *Asier eskailetan behera* (Aizkorri, 2003) nonsensea eta umore kutsuz idatziriko ipuinarekin, edo Mixel Murua *Maripuzker* (Elkar, 2002) izenburuak berak adierazten duen gaiarekin, edo Ruben



Ruiz gaztea, bi libururen egilea: *Itasoaren lezioa* (Desclee, 2002) eta *Eta txorimaloa mintzatu zen* (Aizkorri, 2003).

Gazte literatura

Literatura sariei buruz hitz egitean aipatu dugu *Haydn-en lora* (Aizkorri, 2003), Irakurritz Bizi lehiaketaren irabazlea. Felipe Juaristik nobela atsegina, entretenigarria idatzi du euskal irakurleek bezala erdaldunek ere goza dezaten (Everest, 2003) zentzugabea den nobela ironiko eta umoretsu honekin.

Baina, zalantzarik gabe, gazte literaturan misterio liburuak dira nagusi gure artean. Horren adibidea ditugu azken urte honetan kaleratutako *Azkena urtea Lizeoan* (Ibaizabal, 2002) Joxemari Iturralde, *Ahots isilduaren bahiketa* (Ibaizabal, 2002) Iñaki Fierra eta *Dorretxe zaharreko miste-*

ria (Ibaizabal, 2002) Fernando Morillo idazleak idatzia. Hiru nobelek irakurlea harrapatzen dute, di-da irakurtzera animatu eta, gainera, ofizioko idazleak ditugu hirurak.

Era berean Aingeru Epaltzaren *Urtegijauna* (Pamiela, 2002) nobelan irakurleak gozatuko du, umore kutsua duen obra honetan hainbat eta hainbat abentura gertatzen baitira eta nafar polikari zenbait kritikatu bide batez.

Askoz serioagoak dira Juan Kruz Igerabidek idatziriko bi gazte lanak. Azken urteotan euskal literatura idazlerik emankorrena dugun honek bi lan plazaratu ditu, lehena, *Hiru ahizpa* (Erein, 2003) drama dugu, gaur egungo gizartean giroturik bada go ere literatura tradizionalaren kutsua duen nobela gordina. Ikara eta generoko bortizkeria, askotan zehatz-mehatz azaldu beharrik ez duena, ditugu nobela labur baina tinko honetako ele-

mentu nagusienetarikoak. Bortizkeria dugu, baita ere, Igerabideren bigarren liburuan, *Bosniara nahi* (Aizkorri, 2003) nobelan, bertan Bosniako gerran giroturiko istorioa kontatzen zaigu, bi ikuspuntutik kontaturiko familiaren istorioa. Alde batetik gerratik ihesi Bartzelonara iritsi den mutilaren istorioa, bere ama eta arrebarekin alde egin duenarena, beste aldetik gerra giroan harrapaturik geratu den aitarena. Gerra, samina eta borroken bortizkeriei buruzko nobela hunkigarri eta indartsua.

Azkenik bada beste borroka bat, pertsonalagoa, bakarragoa, Usoa neskatoaren hirugarren nobela. Patxi Zubizarretak idatzi eta Elena Odriozolak ilustraturiko bildumako hirugarren liburuak, *Karpeta morea* (Erein, 2003), hasierako Usoarengana itzuli gaitu. Afrikatik etorri zen Usoa, hango familia ezagutu nahi duena, hemengo eta hango errealitatean bizi nahi duena. Zubizarretak, literatura errekurtsuak ederki erabiliz, emozionatzen gaitu nobela atsegina eta, era berean, sendo eta sakon honekin.

Orain arte aipaturiko honegatik guztiagatik esan genezake 2002-2003ko uzta oso ona izan dela, baina denok dakigun bezala gauza guztiak ez dira duten itxuraren arabera hartu behar, egia da gure ilustratzaile batzuek arrakasta handia izan dutela Euskal Herri barnean eta kanpoan (Elena Odriozola, Mikel Valverde edo Jokin Mitxelena, esaterako), edo gure idazle sarituak inoiz baino gehiago izan direla, bai eta euskal idazleen lanak gero eta gehiago irakurtzen eta ezagutzen direla beste hizkuntzetan; baina horren guztiaren ondoren generoen arteko desoreka dugu, aldizkariaren egoera larria (nahiz eta hemen *Ipurbeltz* zoriondu behar 25 urte bete berri dituelako), baina horren ondoan dugu desagertu den *Kili-kili* edo egoera eznormalizatuan dagoen *Nanai* kalitate handiko aldizkaria. Kritikak aurrera egin du, *Behinola* ere bosgarren urtez plazaratu da... baina atzera begira ondoren, ondo egin ditugun gauza horiek ikusi ondoren, begira dezagun geratzen zaigun guztia eta ekin lanari. ■